

# Eternitatea instant batean

## Hitz batzuk Jon Gerediagaren poesiaz<sup>1</sup>

Alexander Gurrutxaga Muxika

Poesia ona ez dela esplikatu behar esaten dute batzuek, eta egia izango da beharbada (eta soberan nengoke akaso). Horregatik, ez nuke nahi orain Gerediagaren poesiaren magia oztopatu. Saiatuko naiz azalpen xume batzuk ematen poesia horretaz gozatzen laguntzeko; nolabait, eskailera-maila bat egin nahi nuke, hartara errazago iristeko, baina inola ere poesia estali gabe.

Jon Gerediagaren *Argia, lurra, zuhaitza, zerua* poemategiaren hasieran aipu zenbait daude. Horietako bat Xabier Leterena da, eta honela dio: "biziari diot bakea eskatuko nere izpirituak izenda zaitzan". *Biziaren ikurrak* liburuko 18. poemaren azken lerroa da. Liburu horretan, Letera izadiari begira ikusten dugu, biziaren ikurrak sumatu nahian dabil, zentzu erneekin, zentzu antzaldatuekin. Eta bere poesiak gizakiaren eta naturaren arteko harreman hori jasotzen du, denboraren eta espazioaren enkontru magikoak, hain zailak direnak poesiara eramateko. Alde horretatik, ez dabil urrun Gerediaga. Gaur irakurriko dizkigun poema gehienak *Argia, lurra, zuhaitza, zerua* liburukoak badira ere, batzuk laster argitaratuko duen *Urtaroak eta zeinuak* sailekoak dira. Zeinuak, sinaleak, markak, biziaren ikurrak harrapatu nahian ari da Gerediaga ere. "Zer esan nahi dute lore urdinek sasietan", galdetzen du poetak, "zeren seinale dira tximeleta zuriak", zer iragartzen dute?...

Hara hor poesiaren kezka nagusietako bat: nola islatu liteke poesian naturak, denborak eta gizakiak bat egiten duten une efimero hori? Hitz batzuk lapurtuko dizkiot Leteri berari, 2004an esan zituenak elkarrizketa batean:

*Izadiari buruz hiru une daude, eta horietan gauzatzen dira harremanaren ahalbideak: Begiratu. Seinalatu. Izendatu.// Begiratzearekin, zentzuen potentziak erabiltzen ditugu. Seinalatzearekin, harridura eta miresmena adierazten ditugu. Izendatzearekin, dimentsio poetikoa erabiltzen dugu eta ezagutzaren labirintoetan mugitzen gara. (Mujika Iraolak jasoa, 2011:154)*

---

1 Testu umil hau Jose Luis Padronek antolatutako *Poetika* saioretako batean irakurria da. 2018ko ekainaren 14an, Jon Gerediaga aritu zen bere poesia errezeitzen Koldo Mitxelena Kulturunean, eta José Beldak lagundu zion gitarrarekin. Errezeitaldiari egindako sarrera gisakoa da hau. Bide batez, eskerrak, bihotzez, Jose Luis eta Joni, euren adeitasun eta finezia zoragarriagatik.

Uste dut Leteren azalpenak ia hitzez hitz balio lukeela Gerediagaren poesiaz hitz egiteko ere: begiratu, seinalatu, izendatu. *Argia, lurra, zuhaitza, zerua* liburuan bertan badago Oiartzungo poeta kantariari eskainitako poema bat ere. Une batean, Gerediagak, poema horretan, dio: "Ikarati nabil / beldurrez, biziminez / eta hitza eman zaigu gaurdaino agian / behin eta berriro izenda ditzagun gauza guztiak / zuk bezala, zuhaitzak, airea, ura, abereak, harriak...".

Poesia, beraz, izendatzearen une horretan agertzen da. Baudelairek esaten zuen poesiaren helburua dela zerbait absolutua edo eternoa, gu baino harago geratzen dena, handiago dena harrapatzea instant batez. Ezinezko zerbaitez ari gara, bistan da. Gerediagak badaki, Baudelairek ere bazekien, eta Letek ere bai; horregatik esaten zuen poesia dela esan ezin dena izendatzen saiatzea. Inposible bat da bere horretan; gizakia txikiagia da, hutsalegia izate absolutuaren ondoan. Baina ezinezko horren bilaketan agertzen da poesia.

Oteizak esaten zuen artea tranpa dela. Tranpak, zertarako? Ba, izan daitezke, animaliak harrapatzeko, denbora harrapatzeko, Jainkoa harrapatzeko... Gerediagak, *Fitola balba, karpuki tui* izeneko (2004ko) poema liburuaren azken poemaren azken lerroetan hauxe idatzi zuen: "Eta basoko bidean / jainkoak harrapatzeko tranpak / hutsik jarraitzen du". Hurrengo poema liburuak, hiru urte geroago, jarraipena eman zion ideia horri: Gerediagaren liburu horrek *Jainkoa harrapatzeko tranpa* dauka izena. Artea da tranpa, eta artista, beraz, esaten zuen Oteizak, artista da "hacedor de trampas", tranpa egilea: une batez, instant batez, harrapatu nahi luke artistak naturaren izatea, edo Jainkoa, absolutua den zerbait, edo denbora iheskorra. Eta bere erreminta, poetaren tranpa hitza da, izendatzea, poesia.

Absolutuaren eta istantearen arteko kontrastea eta, aldi berean, haiek bat eginarazi nahia etengabe agertzen da Gerediagaren poesian. Horrek berehala dakarkigu gogora Ekialde Urruneko literatura, haikuak eta. Esate baterako, ohar zaitzete nola uztartzen dituen irudi absolutuak (argia, zerua, lurra...) eta gauza xumeenak (adaburuak, ezkutuko lore urdin txikiak, haietan zintzilik dauden euri tantak...). Lehen aldiz gaur irakurriko duen poema batean, iparraldeko izarrari begira dago poeta, eta berriz kontraste eta batasun hori; izarrari zuzentzen zaio: "une batez bizi nahi duzu nire desira nekatuetan, nik zure iraute geldoan hartzen

dut arnasa". Beraz, izarra poetarengan, eta poeta izarren irautean. Ez da kasualitatea Gerediagaren azken liburua "iraun behar duenari" eskainia izatea.

Ekialdeko Urruna aipatu dut, baina aipatzekoak dira beste ildo zenbait ere. Izan ere, poesia klasikoaren oihartzunak sumatuko dituzue tarteka: esate baterako, *vita flumen* itxurako poema batean: "urak, minik gabe, zubi azpitik pasatzen...". Eta, aldi berean, poeta modernisten oihartzun finak dauzka Gerediagaren poesiak. Hor dabil lehen aipatu dudan Lete, hor Gandiaga... Lizardi ere bai, nola ez, bere "bizitzazko urlo"-ekin. Eta aipa genitzake Machado, Unamuno eta gehiago ere.

Amaitzeko, absolutuaren eta izendatzearen kontuari berriz helduz, ez nuke bukatu nahi poesiaren zentzu lehena, jenuinoa zein den gogoratu gabe. Poesia ez da edermen hutsa, ez da lerro politen segida bat, ez da kontu estetiko soila. Poesiaren oinarrian *poiein* grezierazko terminoa dago, eta, jatorrizko zentzuan, zerbait egin edo sortzeari egiten zion erreferentzia, gauzatzeari alegia; gaztelaniaz, "realizar" esango genuke, zerbait erreal egin. Zentzu horretan agertzen da, adibidez, Homerorengan. Eta Platonek, *Oturuntzan*, idatzi zuen (gaztelaniaz leituko dut): «la causa que convierte cualquier cosa que consideremos de no-ser a ser».

Poesia, beraz, izango litzateke izaterik ez daukanari izatea ematea. Poesiaren gauzaguneak unibertsalak dira, eta pertsona inguratzen duenarekin harremanetan jartzen den moduz ari zaizkigu. Eta puntu honetan bueltatzen naiz lehen aipatu dudan ideiarda: izendatzea. Poeta izendatzen duena da, eskuen artetik ihes egiten digun hori harrapatzeko tranpetan dabilena.

Gerediagak zentzu erneekin begiratzen du, miresmenez seinalatzen, eta poetikoki izendatzen. Beste horrenbeste egitera gonbidatzen zaituztet berekin. Entzun dezagun bere poesia, harritu gaitezen berak seinalatzen digunarekin, eta irudika ditzagun poesiaren paisaia eder horiek.